



TOKIKOM

**“Aldaketa
behar zela
argi zegoen”**

Sonia Garcia, Mendaroko alkatea





BABA-JANA HERRIKOIA

Urriaren 15ean, zapatua, 14:30ean hasita

Tolosako babarrunak, Ibarako piperrak, Beasaingo odolostea...

17:00etatik aurrera, dantzaldi-erromeria MP5 taldearekin

25€

(20€, Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Izena emateko azken eguna: urriak 7 (100 lagunentzat)

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA



Tel.: 943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Danok irabaziko dogu BARREN! Etorri eta gozatu!



Angel
Bazterretxea

Umeak gine-
nean, beste he-
rrietako pertso-
nekin biltzen ba-
ginen, geure herri-
ko gauza onak esa-
ten genizkion elkarri.
Adibidez: gure herriko
pertonaiaren bat famatua ze-
la, futbolari, pilotari, txirindulari
edo gure herrian bertako arrantzaleak

beste herrietakoak baino abilezia handiagoa zu-

tela, Elgoibarren sekulako josteko makinak egiten zirela edo erre-
minta makinan lehenengoak zirela, eta abar. Eta horrela jarduten genuen
geure herria goratzeko. Historia aurrera doa, eta gure herriak ere hor do-
az zurrumbilo handi baten barruan.

Gaur ere sekulakoak egin behar direla gure bizimodua gutxieneko

“Gaur egun zein izango litzake gu guztion eskerrik onena jasotzea merezi lukeena?”

duintasun maila batean mantentzeko: eguneroko ogia, osasuna, familia,
heziketa, politika eta abar oso garrantzitsuak dira denon bizitzarako. Ni-
re galdera hauze izango litzateke bizi dugun momentu honetan: gure he-
rriko gorabeheretan, gaur egun zein izango litzateke pertsona, talde edo
elkarte bat gu guztion eskerrik onena jasotzea merezi lukeena? Futbola-
ri on bat, pilotari on bat, txirindularia, ingeniaria, abadea, politikaria... Ez
litzateke izango pertsona argi, zabal, garbi eta horrelako bertuteak izan-
go litzukeena? Zer iruditzen zaizue pertsona edo talde ireki bat gure he-
rriaren bake sakona lortzea bere asmoa duena? Oraindik ezingo al dugu
gure buruaren jabe izan? Hasieran esan dut txikitari jarduten genuela gu-
re herrietako gauza onak besteei azaltzen. Ea zeinek lortzen duen horre-
lako saria: gure herriaren benetako bakea. Pertsona horren herria bene-
tan handia izango dela. Pilotari onak, futbolari onak, maisu famatuak eta
abar on guztiei koro edo bat jarriko genieke: “Herri hoentakoa izan zen
Euskal Herriko bakea egiten jardun eta benetako bakea lortu zuena”.



Iñigo
Lazkano

Ño, Don Angel A ze pastela lagatzen dida-
zuna! Udatik bueltan gai arinago batekin etorriko
ziñalakuan nenguan. Ni oraindik txankletak eta
trajebaiñuak ezkutatzeko nago-eta... Baina bue-
no, zenbat eta lehenago sartu arrastuan, hobel
Beraz, kolpe egingo diot soltatu didazun zezenari,
burladero ostetik bada ere.

Euskal Herrira ongizatia ekarriko doan zeñi edo zeri
emango nion sari bat galdetzen didazu. Zu eta ni ententitzeko, gutxi
gorabehera, Nobel Sari euskaldunak, ezta?

Mundu mailan sari hauek medikuntza, ekonomia, kimika... be-
zelako arloetan ekarpen haundixak egiten dituen pertsona edo
erakundiei ematen jakuez. Geuk bixon artian ere horrelako zeozer
montatzia ez jata gaizki iruditzen, plan polita da negu partian ez
aspertzeko.

“Krisi ekonomiko alu hau gainditzen lagunduko ligukeen norbait sarituko nuke”

Horrela, boteprontuan pentsatzen hasitta, burura etortzen jatan
lehenengo proposizua hauze da: Danontzako lan duiñ bat ekarriko
lukeen baten bati eman biharko giñoke, 2009tik sufritzen ari geran
krisi ekonomiko alu hau gainditzen lagunduko ligukeen bati. Danen
etxera ez da allau krisialdixa, baiña beste batzuetara, ostera, bai. Be-
rriz ere motxilia hartu eta eskolara juaten hasi bihar izan degu! Hortik
atera kontuak! Hau dek harrixa jausi jakuna gaiñera, Don Angel! Ho-
rregatik, harri hau gaiñetik kenduko lidakenari emango nioke nik Eus-
kal Nobel Sarixa, dudarik gabe, gaiñera.

P.D.: Premixo hau irabazten dabanak ez deu Nobel sarixa irabaz-
ten dabanak bezela milioi bat dolarreko eskupekua jasoko, Don An-
gel eta ni ez gera-ta megamillonarixuak egin dinamitia saltzen.



II. URTEURRENA

JULIAN VILLENA MONSALVE

2009ko irailaren 27an hil zen, 78 urte zituela.


Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 24,
arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



Plaza Txikitik herrira

Atzera begira



Komediak eta antzinako joko eta jolasak izan ziren iazko Plaza Txikiko jaietako izarrak. Aurtengoan ordea, beste izar batzuei begira jarri nahi gaitu Plaza Txikiko jai batzordeak. Dimas Gil eta Maritxu Osoro zine-zale elgoibartarrek 60. hamarkadan grabatutako irudiekin egindako pelikula-dokumental bat eta hiru laburmetrai eskainiko dituzte Plaza Txikiko jaien harira. Garai hura bizi izan zutenek ordukoak gogora ekartzeko, eta bizi izan ez gauenok Elgoibarren inguruan gehiago ikasteko; denontzat izango dira bereziak Gil eta Osorok betirako gorde zituzten irudiok.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Zine zale amorratuak ziren Maritxu Osoro eta Dimas Gil eta filmeak ikustera mugatu beharrean, eurek ere eurenak grabatzeko aukera izan zuten. Elgoibarko irudi mordo bat zituena beraien kamerak; baita elgoibartar ugariaren aktore-lanari esker egindako laburmetraiak ere. 60. hamarkada zen elgoibartar bikoteak herriko jaietako irudiak grabatu zituenean, baina beraien seme Rauli esker, gaurdaino iritsi dira irudiok. Gurasoek jasotako irudi denak batu eta Euskadiko Filmatagira eraman zituen Rauli esker, horrela lortu da, Plaza Txikiko jai batzordea irudi haiez gogoratu denean, irudiok erabilgarri egotea. “Txalogarria” irudit

zaio Pedro Mari Andonegiri, Plaza Txikiko jai batzordeko kideari, Rauli Gilen grabazioekin egindakoa eta antzerako dokumentuak etxean gordeta dituen edozeinek, gauza bera egin beharko lukeela ere esan du. Izan ere, horri eskerrak, Plaza Txikiko jaien harira ordubeteko Elgoibarri buruzko pelikula ikusi ahal izango dute herritarrek, hiru laburmetrairekin batera. Kultur Etxean izango dira emanaldiak, asteko lau egunetan, eta horretaz gain, Plaza Txikiko jai batzordeak, Rauli Gil-i esker Euskadiko filmatagitik jasotako kopia Udalaren esku lagatzeko asmoa azaldu du, horrela, herriaren irudiak herriaren eskura egon daitezten.

Dimas eta Maritxu

Biak ere nor baino nor ezagunagoak izan ziren Elgoibarren. Ikusgai izango diren laburmetriak bezalakoak egiten, makina bat elgoibartarrek egin zuten-eta lan beraiekin. Ondo gogoan izango dute herritar askok eta askok bikotea. Pedro Mari Andonegik gogoratzen duen moduan, ondo maitea zen Maritxu Osoro, inguruko guztien artean. "Kaletarra zen hura; kalean jaiotakoa, eta kalean ibiltzera ohitua. Denek ezagutzen zuten. Aurpegi ona eta hitz politak izaten zituen denentzat". Etxetik kanpo lan ere egiten zuen Maritxuk eta ezin esan, hori garai hartako emakumeen artean normalena zenik, beraz, horregatik ere, ezagutzen zuten herrian. Produktu industrialen saltzailea zen bera eta entzunak ziren oso, herriko enpresetara produktuak saltzen egindako joan-etorriak. Dimas berriz, Sigmako langilea zen; eta, ez dakigu horregatik izango den ala Elgoibarko lekukotasunen barruan falta ezin den zerbait delako, baina ikusgai izango den pelikulan ere, badu lekua Sigmako sirena famatuak eta haren atzetik etortzen zen langile multzoak.

Lekukotasunezko altxor kultural bat

Plaza Txikiko jai batzordeak argi dauka irudi hauek lortu izana altxor bat topatzea bezalakoak izan dela. 60. hamarkadan herria nola zegoen, zeuden ohiturak, eta orduko herritarrak zuzen-zuzenean ezagutzeko aukera eskaintzen dute irudiok, eta hori ez da egunero gertatzen. Batek baino gehiagok bere burua topatuko du ziurrenik pelikulan eta beste askok senitartekoen bila joko dute filmeak irauten duen ordu betea. Zertxobait eraldatuta, baina gaur eguneraino iraun duten ohitura eta tradizioak ikusteko aukera eskainiko digu pelikulak.



1965ean hil zen Don Jose parrokoaren hileta, jaietako ganadu feria eta San Bartolome eguneko prozesioa dira pelikulan agertzen diren pasarteetako batzuk. Denak ere, Elgoibar hobeto ezagutzeko egokiak.

Ikusgai izango diren hiru laburmetrietan herriko aurpegi ezagun ugari topatuko ditu ezustean, ikusleak.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



EL GOIBARRO UDALA



MENDIARRO UDALA



AIRE, AIRE ET ETEKIN



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Arnaldo Askatu!

Arnaldo Askatu Herri Ekimenaren aldetik Bateragune epaiketaren sententziaz gure desadostasuna, kezka eta atsekabea adierazi nahi dugu; honekin batera gure elkartasuna auzipetu guztiei eta beraien senitartekoei.

Sententzia hau are eta bidegabeagoa da, herri honek pairatzen duen gatazka konpontzeko bidea, bakea eta benetako demokrazia eraikitzea dela ezin argiago utzi denean. Izan zein izan bakoitzaren iritzia politikoa, gutxieneko demokraziaren gabeziak ari gara hitz egiten. Honela, herritar garen aldetik bizi dugun une honek gure inplikazioa behar du, herri mugimendu sendo bat osatu beharra baitago gure aldarrikapenak beharrezko oihartzuna izan dezan.

Arnaldo Askatu Plataformatik animatu nahi zaituztegu, norberak ahal duen neurrian, bere laguntza aletxoak jartzera, bai egun hauetan antolatzen diren ekimenetan parte hartzen eta baita ere plataformak urriaren 27rako antolatu duen kontzerturako zure bultzadaxoa eskaintzen, *Izan zaitez laguntzaile!* kanpainaren bitartez (jarraibideak www.arnaldoaskatu.com-en aurki ditzakezue).

Honekin batera, berriro nabarmendu, plataformatik prest gaudela edozein herritar norbanako edo talderen ideiei ongi-etorria eta estaldura emateko; gurekin harremanetan jartzea besterik ez daukazue horretarako.

Bukatzeko, Arnaldoren izpiritu eta adierazpenei kasu eginez, une zail hauetan jarrai dezagun bide honetatik aurrera, denon artean lanean!

Arnaldo Askatu Herri Ekimena ☞

AHTren errealitatea

Abuztu bukaeran Iñaki Arriola Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuak AHT Gipuzkoan errealitatea izango dela esan zuen.

Arrazoa, astebete beranduago, langile portugaldar baten heriotzak eman zuen errealitate horren berri, hain zuzen, ikasturtearekin batera irakaskuntzan murrizketak egongo zirela jakin genuen egunean. Esplotazioa eta murrizketak langileontzat, eta etekinak agintarientzat, da errealitatea.

Irakurtzen ari zaren BARREN honentzat

ere bada errealitatea, AHTren 426 kilometrotatik bakar baten aurrekontua, Euskal Herri osoko euskarazko hedabide guztien lau urtetako dirulaguntza bestekoa delako.

Krisiaren ondorioz ez dago dirurik (denontzat), horregatik hobe PNV, PSOE eta PPren artean banatzen badute beharrezkoak ez diren lanak aitzakia hartuta. Bitartean, besteontzat asto-kaka!

Negoio eta txikizio honen kontra gaude nontzat ere AHT errealitatea da, Gipuzkoan ez ezik Euskal Herri osoan; Urbinan beharrezkoak ez zen bortizkeria erabili zuten bakarrak poliziak izan arren, protesta baketsu bat egi-teagatik sei gazte epaituko dituzte. Horien artean elgoibartar bat ere badago.

Horregatik adi hurrengo egunetako mobilizazioei: irailaren 30ean autoinkulpazioak bildatzeko azken eguna. Urriaren 1ean, martxa Urbinatik Gasteizera. Ondoren, manifestazio nazionala Gasteizen. Urriaren 5ean, epaiketa Gasteizko epaitegian.

Ingurugirorik gabe utzi ondoren zorpetuta ere utzi nahi gaituzte!

AHT EZ Elgoibar ☞

Arnaldo askatu!

Espainiar estatuak berriz ere erakutsi du bere maila demokratikoa Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto eta Arkaitz Rodriguez zigortuta. Ez PSOEek ez PPK ez dauka Euskal Herriarentzako eskaintzarik, errepresioa, kartzela eta eskubideen ukazioa ez bada. Euskal Herrian martxan den prozesua, ordea, geldiezina da dagoeneko eta inork ez du Ezker Abertzalea bere bidetik aterako. Bidea argitzen duen izar asko dauzkagu, eta horrelako erasoek sortzen diguten amorrua, lanerako grin bilakatzen zaigu. Begiak malkoz busti arren, irribarre egiten dugu, irabaztera goaz eta!

Besarkada bat Arnaldo eta besteoi, eta baita kartzeletan zareten guztioi ere!

Elgoibarko Ezker Abertzalea ☞



Autoek traba handia egiten dute Urasandin: "Urasandi auzoko goialdean ibiltzen gara pasiaran, eta noizean behin, atsedena hartu behar izaten dugu, baina autoek traba egiten dute, eta askotan ezin izaten gara jarlekuetaraino iritsi. Senarra gurgildun aulkian ibiltzen da, eta ezin izaten naiz berearekin ingurune horretara sartu. Eskertuko genuke bidea libre lagatzea. Eskerrik asko".



Elgoibar armiarmaz josita dago: "Elgoibarko ingurune batzuetan armiarma pila bat daude, eta lehen bailehen neurriak hartu behar dira iruditzen zaigu. Pilar ikastetxe azpiko tunelean egunetik egunera armiarma gehiago eta handiagoak daude. Izutzeko moduko armiarmak daude. Merkatu plaza atzeko zubia ere armiarma sarek beteta dago, eta baita herriko farolak ere bai. Arazo honi irtenbidea eman behar zaio".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkolizaria.com 943 744 112

Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

Ordutegi bereziak!

- Talde murriztuak mailaka.
- Komunikazio klaseak.
- 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
- 3 ordu astean. (Goizez eta arratsaldez)

Kurtsio hasiera urriaren 3an eta bukaera ekainaren 22an

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegia

943 744 040
www.ils.es

ILS



Hamar urteko kartzela zigorra ezarri dio Auzitegi Nazionalak Arnaldo Otegeri

Bilboko manifestazioan parte hartzeko eskatu du Otegiaren aldeko herri plataformak

ETA-ko buruzagitzat jo ditu Arnaldo Otegi eta Rafa Diez, Auzitegi Nazionalako laugarren aretoko epaileen sententziak. Era berean, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto, Ezker Abertzaleko kideak ere zortzina urteko kartzela zigorrarekin zigortu ditu, ETAko kide izatea egotzita.

Epailearen arabera, aipatutako bostek talde bat osatu zuten eta Diezekin batera, talde horren buruzagia zen Otegi, "sustatzaile, arduradun eta koordinatzaile" modura.

Epaileen arabera, Otegi eta Diezek ETAre agindupean abiatu zuten indar subiranistak batzeko prozesua eta sententziak dioenaren arabera, uneoro erakunde armatuak "zaindutakoa" izan da prozesua.

Operazioa eta bi urtera

Urriaren 13an bi urte beteko dira Baltasar Garzon epailearen agindupean Es-



painiako poliziak atxilotu zituenetik. Hain zuzen ere, Ezker Abertzalea estrategiari buruzko gogoeta hastear zenean egin baitzituzten atxiloketak.

Erantzuteko deialdia

Pasa den zapatuan egindako ekime-

netan jende ugari bildu zen moduan, bihar Bilbon egingo den manifestazioan ere parte hartzeko deia zabaldu dute Arnaldo Askatu Politika Askatu plataformako kideek, eta hori ez ezik, manifestaziora "Arnaldoren kamisetekin" joateko ere eskatu diete herritarrei.

Down sindromea duten umeen aldeko eguna ospatu zuten Altzolan



Zubibai Elkarteak antolatuta ospatu zuten Domekan Down sindromedun umeen jaia Altzolan. Eguraldi txarra zela eta, ez zen jende gehiegi

gerturatu, baina han zeudenak primeran pasa zutela adierazi dute antolatzaileek. Gainera, bertako bizilagunek prestatutako pintxo ugari

esker, bostehun euro inguru irabaztea lortu zuten, eta antolatzaileek esana da, irabazi guztiak Euskal Herriko Down Sindromearen fundaziora emango zaizkiola.

Atxixiamaikaren eta Oliver magoaren laguntza ere izan zuten bertaratutakoek egunaz gozatzeko eta txikienek gustura hartu zuten horien bisita.

Zubibai Elkarteak, Udaleko Kultura Sailari, brigadari, Altzolako Urak-i eta Zubibaiko bazkideei eskerrak eman dizkie eskainitako laguntzaren-gatik eta era berean, nabarmendu du modu negatiboan baloratzeko daukaten bakarra dela, gonbidatuta egon arren, Udaleko ordezkari bakar bat ere ez agertu izana.

Protagonista **Salbatzailea**



Arg.: Aitor

Txankakuako ermita zegoen lekuan dirau bertako Salbatzailearen eskulturak 1995. urtetik, baina bi hilabetez ez da han egongo, zaharberritzera eraman dutelako. XVIII mendeko lana da; hasiera batean Txankakuan zegoen ermitan egon zena, 1953an eliza bota eta figura Parrokiara eraman zuten arte. Ondoren, 1995. urtean, lehenago ermita egondako lekuan egin zitzaion lekua berari.

Gaztainondoaren egurrarekin eginda dago, eta Marina del Rey zaharberritzeaz arduratuko den taldeko teknikariak azaldu duenez, egoera nahiko onean dago lanaren estruktura. Polikromia aldetik erakusten du arazo gehien; adituaren esanetan, argi dago eskultura gaintetik margotuta dagoela bere pintura originala ez denarekin. Edozein kasutan, ezer egiten hasi aurretik egoeraren azterketa zientifiko bat egingo dutela adieraz du Marian del Reyk, eta oraingoz aurreikusitakoaren arabera bederen, bi hilabeteren buruan herrian izango da berriro ere.

Irudia **Lehen Sorospenak**

Gurutze Gorriak Lehen Sospenen erakustaldia egin zuen pasa den zapatuan Elgoibarko kaleetan zehar. Herriko gunen desberdinetan banatuta, beraien egunerokoa aurrera eraman behar izaten dituzten lanak egin zituzten, bertara, antzerki bat baltizan, ikustera gerturatutakoaren aurrean.



Arg.: Aitor

Emakumeentzako autodefentsa feminista

Udaleko Berdintasun Sailak emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatu du, urriaren 8rako. Maitena Monroyk emango du saioa, eta eraso sexistetatik nola defendatu behar duten irakatsiko die emakumeei, modu erraz eta sinplean. Emakumeen eskubide eta gaitasunez jabetzeaz gain, konfiantza eta segurtasuna sustatuko dira, indarkeriaren inguruko mitoak hautsiz eta emakumezkoen ahuldade fisikoari buruzko estereotipoak desmitifikatuz. Ikastaroa Musika Eskolan izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Izena emateko, Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailerak jo behar da, urriaren 5a baino lehen (Elgoibarko Udala, Foruen Plaza z/g) edo eta 943 257 986 telefonora deitu. Ikastaroa doan izango da.

Elikadura energetikoa eta makrobiotikoa

Datorren martitzenean, hilaren 27an, izango da hitzaldia iluntzeko 19:30ean Kemen Belardendan. Marta Francisco Barcenak adituak emango du hitzaldia eta doan den arren, aurrez 943 744 031 zenbakira deituta joango denaren berri ematea komeni da.

Azkueko jaietako errifa

Dagoeneko banatu dute Azkueko errifaren saria. Jose Luis Oriak eraman du etxera jatekoz eta edariz betetako karretila; nahiz bera erreserbako zenbakiaren jabea izan. Ez da eta irabazlea agertu.



Erretratu zaharra



1948

Aste honetako erretratu zaharra Begoña Mugertzak ekarri du BARRENERA. Egun hartan ezkondu aurreko azken agurra ospatu zuten, eta lagun arteko erretratua atera zuten Plaza Txikian. Ikus dezagun zeintzuk diren emakume dotore horiek:

Goian, ezkerretik eskumara: Angeles Azkue (†), Ana Elorza (†), Angelita Aranberri (†), Digna Lasa (†), Maria Oria (†), Isabel Unzueta (†), Ines Ziaran (†).

Erdian: Ezezaguna, Mari Tere Elkoroiribe (†), Benita Agirre (†), Maria Arozena (†), Josefa Aranberri (†), Angeles Arozena (†) eta Benita Elkoroiribe.

Behan: Pakita Azkue, Luz Abascal (†), Maria Iriondo (†), Ana Garate (†). Tomasa San Martin, Gregoria Elkoroiribe, Felisa Arriaga, Rosalia Canales (†).

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3. soltoa 943 74 35 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzeak
Lantekura: eguzi, aluminio, PVC,
Pintura orokorra

San Roke, 7 beheak
Pol. Olaso - Olaso kalea, 10 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 740 570

GRUPO
PINTURAK

sonia garcia

Mendaroko alkatea

Aldaketa politikoa eman zen Mendaron maiatzaren 22ko hauteskundeetan, eta ordutik, Bilduk agintzen du udaletxean, gehiengo osoarekin, gainera. Sonia Garcia da Mendaroko alkate berria, eta bera izango da udaletxeko agintaria datozen lau urteetan. Hasierako beldurra, ilusio bilakatu zela adierazi du, eta egunetik egunera gauza berriak ikasten dihardu Sonia Garciak.

Ainhoa Andonegi



“Itxaropen eta ilusio berri bati heldu dio jendeak Mendaron”

Pasatu dira hilabete batzuk maiatzaren 22ko hauteskundeetatik. Nola gogoratzen duzu gau hura?

Gau hartan pasatu zena izugarria izan zen, nik uste dut ez dagoela hitzik gau hartan bizi izan genuena deskribatzeko. Emozio handiz beteriko eguna izan zen hura, eta urduritasun handia genuen gure inguruan. Izan ere, denok gogoratuko duzuen bezala, legalizazioa zela eta ez zela, gure kanpaina azkenengo momentuan hasi zen. Oraindik gogoratzen dut nola biltzen ginen gure programa lantzeko eta informazioa bateratzeko! Zenbat ordu pasa genituen elkarrekin eta zenbat lan egin genuen erlojuaren kontra. Botoak zenbatzen hasi ginenean gure alderdiko papeleta kopurua gora eta gora ikusten nuen. Bihotzak esaten zidana azkenean egi bihurtu zen. Udaletxetik atera ginenean, nire gorputza espazioan flotatzen balego bezala

igartzen nuen, negar egiteko gogoia neukan baina, aldi berean, ilusio berri bat sortu zen: barregura, jendea besarkatzen, muxuka, kantuan... Ez dago hitzik.

Hauteskundeetara aurkeztea erabaki zenutenean espero zenuten Mendaroko alkatetza lortzea?

Egia esan behar badugu, ez. Itxaropen apur batekin aurkezten zara, baina Mendarok eduki duen esperientzia politikoa ikusita, eta errealitatea une hartan zein zen ikusita, oso zaila ikusten genuen. Hiru zinegotzi aterako genituelakoan geunden, baina sekula ez genuen uste bost lortuko genituenik. Kontuan izan behar da, gainera, talde gaztea garela, eta sekula udaletxean egon gabekoa. Guretzat dena berria zen, eta berria izaten jarraitzen du. Lau urte dauzkagu falta zaigun esperientzia eskuratzeko.

Zein izan da zure ustez Mendaroko herriak Bilduren aldeko apustua egiteko arrazoa?

Nire ustez, itxaropen eta ilusio berri bati heldu dio Mendaroko jendeak. Aldaketa behar zela argi zegoen. Gainera, ez da Mendaron bakarrik izan, Gipuzkoan ere izugarrikoa izan da Bilduren olatuak aurretik eramandako guztia. Bestalde, herritar bezala bozkatzeko garaian beste aukera bat edukitzea oso aberasgarria da, eta urteetan aukera hori ez dugu eduki, Mendaron behintzat. Gainera, gure programa kaleratzeko eta herriarengandik hurbilagoa izan zedin, Mendaron sekula egin ez zena egin genuen: kalera irten eta mitina eman. Aukera ezberdina zen, eta zergatik ez?

Alkatetza, gehiengo osoarekin gainera. Horrek lana erraztuko dizuela uste duzu?

Alde batera bai, noski, baina kontutan eduki behar dugu oposizioak ere bere zer esana badaukala, eta bere esperientziarekin ekarpenak egiteko ahalmena daukala. Aportazioak mesederako badira, eskertzekoa da, azken batean herria izango baita hortaz aberastuko den bakarra.

Nolakoak izan dira lehenengo hilabeteak?

Ez noa gezurrik esatera; lehenengo hilabeteak nahiko gogorrak egin zaizkit. Nire lehenengo lanean ere jarraitzen nuen, eta bi gauzak eramatea karga handia da. Eta gainera, familia! Nik uste dut kaltetuenak berriek izan direla hasierako hilabete hauetan behintzat, lotarako orduan bakarrik ikusten baininduten. Orain egoera ezberdina da; ezidentzia eskatu baitut nire lanpostuan. Bide luzea daukagu aurretik, eta gauzak ahal den ondoen egiten saiatuko gara. BARRENEK eman didan aukera hau aprobetxatuko dut nire senarrari eta umeei muxu handi bat bidaltzeko, merezi dute eta.

“Mendaroko Udalaren egoera ona da, baina beti dago zer hobetu”

Alkate izatea uste zenuena bezalakoa al da?

Orain arte, ez dut sekula pentsatu izan alkate baten bizimoduan. Azken batean, lan bakoitzak bere egitekoak eta ardurak dauzka. Agian lan honek ardura handiagoa dauka, publikoki pertsonaia ezagun eta erreferentea zarelako. Gainera, politikan dagoen hierarkiari jarraituz, udaletxea lehen mailan dago, eta bertan lan egiteak zeregin hori dauka, onerako eta txarrerako, kexak lehen lehenik udaletxera iristen baitira. Badakigu munduan ez dela jaio denen gustua egingo duen pertsonarik, eta alde horretatik behintzat lasai nago, baina denerako prest egon beharra daukagu.

Zertan aldatu da zure bizimodua alkate zarenetik?

Ez da gehiegi aldatu. Orain ez naiz 7:00etarako lanera joaten, baina horrek ez du esan nahi goiz jaikitzen ez naizenik. Lehen egiten nuen bizimodu berbera egiten dut orain ere, eta etorkizunean ere horrela izatea



gustatuko litzaidake, hau da, gehiegi ez aldatzea. Aldaketa bat aipatzekotan, herriko jende gehiagorekin daukat orain harremana eta hori oso aberasgarria da. Beti hurbiltzen da norbait aholkuak ematera edo eta eskaera bat egitera, eta hori eskertzekoa da, benetan. Jarraitu dezate-la horrela.

Nolako harremana duzue oposizioko alderdiekin?

Denok, bat izan ezik, Mendaron bizi gara. Josean PSE-EEko zinegotzia Donostian bizi da eta plenoetara bakarrik etortzen da momentuz, beraz, berarekin oso harreman mugatua daukagu. Eta beste alderdia, PNV, hain zuzen ere, betidanik ezagutzen dugu elkar, herriko jendea da.

Zein egoeratan aurkitu duzu Mendaroko Udala? Zein izan da egin duzun lehenengo lana?

Mendaroko Udalaren egoera ona da, baina beti dago zer hobetu. Egin dugun lehenengo lana Mendaroko jaiak prestatzea izan da. Pentsatuko duzue *sartu orduko parrandan pentsatzen!* Gogoratuko duzue, ekainaren 11n hartu genuen kargua eta Santa Anak uztailaren 26an izaten dira. Jaiak antolatzea izan zen gure estreinako lana. Egia esan, eguraldiak lagundu ez arren, oso jai alaiak izan dira aurtengoak. Herriko jende guztiari eskerrak emateko aprobetxatzen dut, partehartzea izugarria izan zelako.

“Lehenengo hilabeteak gogorak egin zaizkit”

Zein izango da legealdiko proiekturik garrantzitsuenak?

Proiekturik garrantzitsuenak eurotan neurtzen badugu, eta gaur egun gure gizartean horrek du garrantzia handiena, Mendaro Ikastolako patioa estaltzeko proiektua izango da garrantzitsuenak. Egia da, badagoele proiektu garrantzitsuago bat: herritarren partehartzea bultzatzea, alegia, baina hori ez dago eurotan neurtzerik. Eta proiektu zabalena, Mendarozabalgo auzoan zubi berri bat egitearena izango litzateke. Gaur egun zubi bakarra daukagu herrira autoz sartzeko, eta jende guztiak erabiltzen du, ospitalera edo bai industriguneetara joateko.

Ikastolako patioaren proiektua aipatu duzula, bertan behera geratu dela entzun dugu. Zertan da proiektu hori?

Ez da bertan behera geratu. Denbora gehiago behar zela pentsatu genuen, eta momentuz gelditu egin dugu. Azalpen erraza dauka horrek: obrak udan egin behar direnez, denboraz oso gaizki genbiltzan aurtengorako. Pentsa hauteskundeak noiz izan ziren, eta alkatetza noiz hartu genuen! Ekain erdian geunden konturatzerako. Proiektua ez genuen ezagutzen eta ez genekien ideia hori nondik sortu zen ere. Orduan, ikastolako zuzendariarekin hitz egin genuen, eta proiektuaren arkitekturekin harremanetan jarri ginen, azalpen guztiak bere ahotik entzuteko: erabiliko ziren materialak, aurrekontua...

Krisiak izango al du eraginik legealdian?

Non ez du eraginik, krisiak?

Etxebizitzari dagokionean, zein politika jarraituko duzue?

Mendaron orain dela urte batzuk eman zen etxeak egiteko aukera zabal hori. Etxe asko eraiki ziren, eta mota guztietakoak. Orduan eraiki ziren etxebizitza asko salgai daude oraindik, beraz, argi dago alde horretatik ez dagoela eskaera handirik. Ez dira garai onenak.

Herritarren partehartzeak garrantzia handia dauka herrian. Mendaro-arek badute udal bizitzan parte hartzeko aukerarik?

Udal bizitzan parte hartzeko beti dago aukera, nahiz eta askotan norberaren gustokoa ez izan. Hilero egiten ditugu plenoak, eta hor udal-erabakitzeko diren gai asko ezagutzeko aukera izaten da. Uda-

lak erakunde bezala, herriarengandik gertuago egon beharko luke, baina nola lortu hori? Gaur egun komunikazio mota berriek aukera handia eskaintzen dute, baina nik uste dut oraindik ere jende guztiarengana ez garela behar bezala iristen, eta pauso txikiak eman behar ditugula sare horren erabilpen egoki bat lortzeko, bai udal-erabakitzeko eta baita herritarren artean ere. Bestalde, badaukagu herritarren partehartzea sustatzeko batzorde bat, baina horri forma eman behar diogu behar bezela funtzionatzen hasteko. Argi dago herritarren partehartzeari garrantzia handia eman behar zaiola, udal-erabakitzeko eta, nola ez, herria, denon artean osatzen ditugulako. Beraz, asmatuko dugu Udala herriarengandik gertuago egoteko bidea. Nire ustez, gauzak ongi joateko, pertsonak gogobeteta egon behar dute. Horregatik, proiektu batean diharduen pertsonak horretan aritzeaz harro sentitu behar du, eta hala erakutsi behar du. Era berean, familia bizimoduarekin partekatuta behar du, horrek lasaitasuna ekartzen duelako eta, aldi berean, segurtasuna ematen duelako. Integratuago eta, ondorioz, parte hartzaileago sentitzeko aukera ematen du. Hori izan behar da bidea.

Integrazioari dagokionean, zein asmo dituzue legealdirako?

Lehenengo azterketa sakon bat egin beharko da Mendaron daukagun egoera ezagutzeko, eta ondoren, gure gizartean ahalik eta ondoen integratzeko aukera emango zaie. Jakin badakigu kultura mota guztiak ez direla berdinak, baina ahal den ondoen elkarbizitzeko saiatu behar gara guztiok.

Zein da zure ustez Mendaroko herriak daukan beharrik handiena?

Beharrak asko dira, eta gehiago inguruko herriei edo behintzat gure eskualde barruan dauden herriei konparatzen bagara. Era berean, norekin hitz egiten duzun kontuan hartuta, eta bakoitzaren adinaren arabera, beharrak ezberdinak dira. Azkenean denak dira garrantzitsuak: futbol-zelaia, pilota, bertso-eskola, musika, parke berriak, komun publikoak, kiroldegia, argiak, errekek, aparkalekuak... Denak du bere garrantzia. Agian segurtasun arazo bat delako eta hori egin ezean salduta geratzen garelako, beharrik beharrezkoena herrira sartzeko zubi berri bat eraikitzea izango da.

Zein nota jarriko zenioke Mendaroko bizi kalitateari?

Elkarrizketa hau Elgoibarren eta Mendaron irakurriko da bereziki, baina beste edonongo biztanle batek irakurrita ere, jakin dezala Mendaro bezalako herririk ez duela topatuko munduan. Norberarentzako bere herria izaten da beti onena! Nola jarriko diot ba nik Mendarori nota? Lasai bizi gara, batzuetan lasaiegi akaso, umeak hazteko oso leku aproposa da, herri zabala, eta naturala, bi zentzutan: naturaz inguratuta gaudelako eta jende naturala garelako. Azkenean, daukagunarekin bizitzeko ikasi behar dugu, eta ez daukaguna faltan ez botatzen ikasi. Ia bi mila biztanle dituen herria gara, eta horrek bere mugak dituela esan nahi dut. Mendaro herri izatera iritsi zen eta halaxe garatzen ari da aspalditik, jende askoren borondate onarengatik, eta prestutasunarengatik. Hain zuzen ere, partehartzearekin goaz aurrera. Hori izaten da herri txiki askoren funtzionamendua.

Azaroaren 20an Espainiako Hauteskundeak izango dira. Zein emaitza aurrikusten duzu?

Aurreko hauteskundeetako bide berbera jarraituz, emaitza onak espero ditugu.



2011ko irailak 24 - LARUNBATA Tokia: Foruen Plaza.

Anima Zaitetz, zain gauzkazu!
TXANKAKUA Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkarte



Dirulaguntza



Elgoibarko Udala
Ayuntamiento de Elgoibar

10:30etatik 14:00etara

- Produktu / zerbitzuen erakusketa eta salmenta.
- Haurrentzako parke puzgarriak.
- TXU-TXU trena herriko kaleetan zehar.
- TXANKAKUA VISA TXARTELAren stand-a. Txartela eskatzen dutenek opari bat jasoko dute.
- OPARIA: Irailaren 19tik 24ra bitartean elkarteak edozein dandatan egindako erosketa-tiketa gordetzen baduzu (erosketa-tiket bezala zigilatuta egon behar da) opari bat jasoko duzu plazan tiketa aurkeztean. (Opariak bukatu arte).

13:30etan

- 600 €-ren zozketa
100 euroko 6 sari erosketa baleetan.

2011-2012 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK

- Asprez aurrekoak
 - 2, 3 edo 4 egun ostean
- Autokaskuntza Internet bidez

IKASTARO BEREZIAK

- Enpresak
- ADA (Itakirikak)
- Merkatariak eta cateringak

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Perlikak (Administrazioa, Osakidetas, Hezkuntza, ...)
- HABEen 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

MATRIKULALDIA

Irailaren 23ra arte

DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK

Informa zaituz euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

Euskara ikasteko.
Orriategi mugaguz:
goizez, arratsaldez eta goizez.
Bekak sistema eta diru laguntzak ditugu.

5 ARRAZOI ON UDAL EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO

1. Zure seme-alabei etxeko katean laguntza emazteko dize.
2. Komunikabideak ulertzen lagunduko dize.
3. Lagun berriak agingo dituz.
4. Lana aurkitzen lagunduko dize.
5. Euskaraz inburtzen eta idazten trebatuko zara.

Abantailak

- Truku ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Orotan eta arritimo mugaguz.
- Kursoa finantzatzeko beka.
- Ekintza asgarriak.



DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Errepublikan 2
20870 ELGOIBAR • Tel./Faxo: 943 74 27 31
elgoi.euska@udal.gipuzkoa.net



EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA



Sara Bernedo

Txankakua Merkataritza Elkarteko presidentea



Txankakua Merkataritza Elkartek, urteroko feria antolatu du zapatu honetarako, hamaikagarrenez. Plaza handian izango da, eta merkatarri bakoitzak herriari eskaintzeko daukana erakusgai egoteaz gain, Txu-txu trenaren eta haurrentzako gaztelu puzgarriak ere ez dira faltako.

“Hemen gaudela esatea da Feria egitearen arrazoia”

Hamaikagarren edizioara iritsi da feria dagoeneko. Gustura zaudetenaren seinale.

Bai, eta ez gu bakarrik. Herritarrek ere gustura daude; asko gustatzen zaie egun hori, eta hein handi batean horregatik egiten dugu.

Eta horrez gain, zein da feria hau egitearen arrazoia?

Urtean behin bada ere, hemen gaudela esatea. Hau da, herritarrei daukaguna erakustea. Ditugun aukerak jakitera ematea. Askotan gertatzen delako adibidez, jende bat egunero-egunero denda baten paretik pasatu arren, barrura sekula ez sartzea. Egundon honetan ordea, herritarrek ez daukate dendara sartu beharrik. Lasai ikusi dezakete bakoitzak saltzeko daukana, inon, barrura sartu beharrik izan gabe.

Feria honek azken batean herriko merkatu txikia indartzeko ere balio du. Zein da herriko denda txikien egoera, gaur egun?

Beste lekuetan bezalakoa. Askok jaitzi da salmenta, nabarmen. Baina beno, bakoitzak ahal duen moduan, egoera berrira egokitzen dihardugu.

Krisiak izango zuen eraginik jaitsiera horretan, baina eta merkatal zentro handien hazkundeak?

Baita, noski.

Herriko denda txikiak badute etorkizunik zure ustez?

Bai, edo gustatuko litzaiguke behintzat. Azken finean guk eskaintzen duguna ez da bakarrik gure produktua; arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu. Jendea dendan, etxean bezala sentitzen da; ikusi besterik ez dago

zenbat jende eramaten dituen erropak etxera probatzera. Hori merkatal zentro handi batean sekula ez da gertatuko. Edo ez zaituzte izenez deituko, edo ez dizute galdetuko nola zauden. Eta horregatik mantentzen gara. Hori da gure gainbalioa. Hor dago gure desberdintasuna.

Herritarrek estimatzen dute desberdintasun hori.

Bai. Esaten dugunean horregatik mantentzen garela, ez da gezurra. Egoera dagoen moduan egonda, jendeak oraindik ere herriko dendetan erosten jarraitzea, ezinbestean eskertu beharreko zerbait da. Guk badakigu eta, hauek ez direla garai onak, eta merkatu txikiaren aldeko apustuak, ahalegin bat eskertzen duela, eta ahalegin hori egin izana, asko eskertzen dugu.

Tertuliak programan izena emateko epea urriaren 14an amaituko da

Urritik ekainera arte iraungo du egitasmoak



Elgoibarko Izarrak Tertuliak egitasmoa antolatu du aurten ere, euskaldun berriek euskaldun zaharrekin euskaraz hitz egin dezaten. Bi, hiru, edo lau laguneko taldeak osatzen dira, eta, talde bakoitzean, euskaraz erraztasunez hitz egiten duen lagun bat egoten da. Elgoibarko Izarratik jakinarazi dutenez, Tertuliak egitasmoa partaideek "gustura" jarduten dute. Eusko Jaurlaritzak 50 galdera batzen zituen 1.800 inkesta egin zituen iaz, eta emaitzek egitasmoaren eraginkortasuna eta baliagarritasuna azpimarratzen dute. Hiru datu nabarmendu dituzte: batetik, mintzapraktika behar duten guzti-guztiek aitortzen dute laguntzaileei esker asko edo nahikoa hobetu dutela mintzamena; bestetik, partaideen gehiengo oso zabal batek aitortzen du esperientzia oso positiboa izan dela, eta denek aitortzen dute lehen baino leku gehiagoetan eta jende gehiagorekin euskaraz egiten dutela.

Tertuliak egitasmoa doakoa da, eta urritik ekainera arteko iraupena du. Interesatuak urriaren 14ra arte eman dezakete izena Elgoibarko Izarra kultur elkartearen (943 741 626).

Xabier Montoiaren kontzertuak irekiko du gaur gauean 'Sotoko Hotsak' musika jaialdia



Sinuose elkarteak Sotoko Hotsak musika jaialdia antolatu du, eta aurten hiru kontzertu eskainiko dituzte: Gaur

gauean Xabier Montoiak eskaniko du estreinako kontzertua, Maite mursego eta Ibon Rg-ren laguntzarekin. Diska berria ateratzear dago musikaria, eta antolatzaileen arabera, aukera polita izango da Montoiaren mundu miresgarri horiek ezagutzeko. Datorren ostegunean, bestalde, Anari azkoitiarraren kontzertua izango da, eta barixakuan Joseba Irazoki etorriko da Beratik. Barixakuetako kontzertuak 22:30ean hasiko dira, eta eguenekoa, 22:00etan. Kontzertu guztiak Kultur Etxeko sotoan izango dira, eta sarrerak, 3 euro balioko ditu.

Gurasoentzako euskara ikastaro bereziak antolatu dituzte

Euskararen transmisioan eragiteko asmoz, gurasoentzako euskara ikastaroak antolatu ditu Udaleko Euskara Sailak, euskaltegiekin eta ikastetxeekin elkarlanean. Hiru euskara ikastaro eskainiko dituzte: Euskalduntzea, hobeto eta errazago hitz egiten ikasteko ikastaroa, eta hobeto idazten eta irakurtzen ikastekoa. Udalaren dirulaguntzari esker, 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoek ikastaroaren matrikula erdia bakarrik ordainduko dute, eta kurtsoan zehar asistentzia eta aprobetxamendu ona izanez gero, beka ere jasotzeko aukera izango dute. Informazio gehiagorako Euskara Sailera edo euskaltegietara jo daiteke.

Kilometroak jaira joateko autobusa, Mendarotik

Mendaroko Udalak urriaren 2an Azpeitin ospatuko den Kilometroak jaialdira joateko autobusa antolatu du. Interesatuak udaletxean bertan edo Morroskilo dendan erosi ditzakete autobuserako txartelak 5 eurotan, irailaren 26a baino lehen. Autobusa 9:00etan irtengo da tren geltokitik eta, itzulera 20:30ean izango da.

Esperientzia Eskolan izena emateko epea urriaren 14an amaituko da

Esperientzia Eskolan izena emateko epea urriaren 14an amaituko da. Aurtengo ikasturtea urriaren 18an hasiko da, eta ekainaren 7ra arte iraungo du. Kurtsoak 200 euroko kostua dauka, eta ikasturtean zehar egin daiteke ordainketa. Esperientzia Eskolan parte hartu ahal izateko baldintza bakarra, 50 urte bete ta edukitzea da. Izena emateko udaletxera jo daiteke. Informazio gehiagorako nahi izanez gero, 626 773 676 telefonora deitu daiteke.

Artzain txakur txapelketa eta idi demak izango dira San Migel jaietan

Haritz dantza taldeak Borja Uzuriaga omenduko du

Asteburu honetan hasiko dira San Migel jaiak, eta antolatutako ekin-tzen artean, Euskal Herriko arraza libreko artzain txakur txapelketako finala jokatu da bihar, 17:00etatik aurrera. Zazpi artzainek hartuko dute parte guztira, eta horietako bat Aiastiako Jose Antonio Arrillaga izango da.

Domekan, bestalde, idi probak egingo dituzte. Elgoibarko Soarte, Azkoitiko Isidro erretegia eta Aizarnazabalgo Basaberen idiek jardungo dute lehian.

Borja Uzuriaga gogoan

Haritz dantza taldeak moto istripuz hil zen Borja Uzuriaga aiastiarri eskainiko dio dantzaldia. Zapatu gauean izango da dantza saioa, 22:30ean hasita.



Aurten bi asteburutan ospatuko dituzte aisatiarrek San Migel jaiak. Bihar hasiko dira ekitaldiak, eta hurrengo asteburuan amaituko dira.

Debabe euskaltegian izena emateko epea zabalik dago

Udal Euskaltegiak gogorarazi nahi du zabalik dagoela euskaltegian izena emateko epea, eta interesa dutenei lehenbailehen izena ematera joateko eskatu die. Astean bi, hiru eta lau eguneko klaseak eskaintzen dituzte, eta baita autoikaskuntza ere. Gainera, euskaltegi azterketen bidez, 1, 2, 3 eta 4. mailako titulu ofizialak lortu daitezke. Agiri horiek Hezkuntza, Osakidetza eta IVApeko perfilen eta EGaren balioak dira. Ikastaroak HABEK eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutakoak dira, eta prezio bereziak daude langabetu, guraso, ikasle eta jubilatuentzat. Informazio eta matrikularako, jo euskaltegira, (943 742 731).

'Ocasiones especiales' antzezlanaren aurkeztuko du Txalo Produzioak Herriko Antzokian

Txalo Produzioak taldeak *Ocasiones especiales* antzezlanaren taularatuko du Herriko Antzokian, urriaren 7an. Lola eta Victor banatu egin dira, dibortziatu. Senar-emazte zoriontsuak izan dira urte luzez (hiru seme-alaba ederren aita-amak) eta dena joan da pikutara. Baina, banandu diren arren, beren ibilbideak behin eta berriz gurutzatuko dira hamar urtean zehar zenbait abagune berezi eta dibertigarritan.

Bi saio eskainiko dituzte, bata 20:00etan eta bestea, 22:15ean. Interesatuak www.kutxa.es helbidean eros ditzakete sarrerak.



Kilometroak jaira oinez, Elgoibarko Izarrarekin eta Morkaikorekin

Urriaren 2an Azpeitin egingo den Kilometroak jaialdira oinez joateko irteera antolatu dute Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Morkaiko mendizale taldeak. 8:00etan irtengo dira oinez Plaza Handitik, eta laupabost orduko ibilaldiaren ostean iritsiko dira Azpeitira. Mendizaleek autobus bat izango dute zain, eta izerditutako erropak aldatzeko aukera egongo da. 20:00etan itzuliko dira etxera. Bazkideek 7 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 10 euro. Interesatuak irailaren 29a baino lehen eman behar dute izena.

Aire libreko margo lehiaketa domekan, Mendaron

Datorren domekan aire libreko margo lehiaketa egingo dute Mendaron. Edozeinek har dezake parte, eta norberak nahi duen teknika eta euskarria erabili ahal izango du. Lanak eguerdiko 13:00etatik 14:00etara bitartean aurkeztu beharko dira udaletxean. Irabazleak 800 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak 400 euroko akzesita. 14 urtetik beherakoetan margotzeko materiala jasoko dute lehenengo bi sailkatuek. Sari banaketa 15:00etan egingo dute, udaletxeko Arno aretoan.

Gazte informazio buletina e-postaz jasotzeko

Elgoibarko Udaleko Gazte Informazio Zerbitzuaren buletin elektronikora harpidetzen diren lehen 150 gazteek USB memoria bat jasoko dute oparizat. Infomazio buletina, harpidedun diren gazteei posta elektronikora astero bidaltzen zaien aldizkari elektronikoa da. Ondorengo helbidean egin daiteke harpidetza: <http://www.gipuzkoangazte.info/buletinharpidetza.a> sp estekan sartzea.

Yeray Varela oñatiarrak eta Cristina Loeda eibartarrak irabazi zuten euriak bustitako Gau Krosa

200 lagunek hartu zuten parte lasterketan

Euriak busti zuen joan zen asteburuan Mintxeta atletismo taldeak antolatutako Gau Krosa, baina hala ere, 200 lagunek hartu zuten parte lasterketaren bigarren edizioan. Kale bazterretan ere herritar ugari batu ziren korrikalarietara animoak emateko, eta denen artean giro polita sortu zuten herriko kaleetan.

Lasterketari dagokionez, Yeray Varela oñatiarra eta David Garcia durangarra nabarmendu ziren beste guztien gainetik. Lehia polita eskaini zuten bi korrikalarietara, eta amaierara arte ez zen argitu proba nork irabazi behar zuen. Azkenean, Varela (26:49) zortzi segundoko aldea atera zion helmugan Garciari. Helmugaratzen lehen elgoibartarra, beriz, Roberto Gonzalez izan zen, eta bosgarren postuan amaitu zuen proba. Emakumezkoetan, bestalde, erakustaldia eman zuen Cristina Loeda eibartarrak, eta bi minututik gorako aldea atera zion helmugan iazko irabazleari, hain zuzen ere, Ainhoa Lendinez elgoibartarrari.

Sailkapen osoa eta argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net



Emakumezkoen podiuma.



Gizonezkoen podiuma.

Urolako eskubaloi txapelketa irabazita hasiko du liga Alkortak



Alkorta taldeko kapitaina saria jasotzen.

Alkorta senior mutilen taldeak Urolako eskubaloi txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan Bergara, Zumarraga eta Legazpiko taldeen kontra. Hori izan zen aurrendenboraldiko azken saioa, eta asteburu honetan Gasteizen jokatuko dute ligako lehenengo partida. Bestalde, Euskadiko selekzioak denboraldiko lehen entrenamendua egingo du datorren domekan, eta bertan, Sanloko bost jokalarik hartuko dute parte: Alex Osoro, Alejandro Beraza, Nerea Solozabal, Alaitz Egaña, Nagore Rodriguez eta Ane Gallardo. Mutilen taldeak Basaurin egingo du entrenamendua eta nesken taldeak, Ermuan.

Argazkia eta txosna

Sanloko kideek familia erretratua aterako dute bihar, Ikastolako pistan 11:00etan, eta ondoren, klubeko talde guztien argazkiak egingo dituzte Nafarroa Plazan, 12:00etan. Horrez gain, Sanlok txosna jarriko du bihar, azken zapatuko ferian.

Maite Maiorak bosgarren egin du mendi lasterketen munduko kopa

Italian jokatu zuen domekan txapelketako azken proba

Maite Maiora korrikalari mendararrak bosgarren lekuan amaitu du mendiko lasterketen munduko kopa. Orain dela bi aste Atxondoko Sorginen Lasterketa irabazi ostean, Italiako Lecco herrialdean jokatu zuen joan zen domekan txapelketako azken proba, eta bosgarren egin zuen, 3:06:41 denborarekin. Laugarren sailkatuak hamar segundo atera zizkion mendararrari, eta podioa minutu eta 18 segundora geratu zitzaion. Eguraldi txarra egin zuen lasterketa egunean, eta antolatzaileek ibilbidea moldatu behar izan zuten. Hasieran 43 kilometroko ibilbidea prestatu zuten, baina euria eta txingorra zela-eta, 28 kilometroko ibilbidea egin zuten azkenean korrikalariak.

Bosgarren postu horrekin sailkapen nagusirako 82 puntu poltsikoratu zituen



Maiorak, eta horri esker, bosgarren lekuan amaitu du mendiko lasterketen kopa, 303,60 punturekin.

Concepto Egile areto futbol taldea aurkeztuko du bihar arratsaldean CD Debararrenak



Artxiboko irudia

CD Debararena klubak bihar arratsaldean egingo du lehen taldearen aurkezpena: Concepto Egile taldeak 2B mailan jokatu du datorren denboraldian, eta udaletxean egingo du talde berriaren aurkezpena. 17:00ak aldean izango da ekitaldia, eta ondoren, erretratu ofiziala aterako dute Plaza Handian. 19:30ean, Tolosako Laskorain taldearen kontra jokatu dute lagunarteko partida Olaizaga kiroldegian, eta datorren asteburuan hasiko dute liga txapelketa.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Kultu 2 (3. maila)
Tolosa 1 – Elgoibar 0 (Ohorezko maila)
Ordizia 2 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)
Arrasate 3 – Elgoibar 1 (Kad. A)
Elgoibar 1 – Arrasate B 1 (Kad. B)
Elgoibar 1 – Eibar 2 (Ohorezko inf.)
Lagun 2 – Elgoibar 0 (Neskak)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 22 – Zestoa 19 (2. mailako nag.)
Lagunak 18 – Hernani 22 (2. mailako jub.)
Oiarpe 22 – Lagunak 6 (1. mailako jub.)
Oiarpe 22 – Lagunak 6 (1. mailako jub.)
Lagunak 7 – Zestoa 22 (2. mailako kad.)

Pala

Altzatarra 21 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 24

19:30 Concepto Egile – Laskorain (2.B maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 24

11:30 Elgoibar – Aretxabaleta (Kad. A)

16:30 Elgoibar – Euskalduna (Ohorezko jub.)

Domeka, 25

12:00 Elgoibar – Mutriku (Neskak)

16:30 Elgoibar – Aretxabaleta (Ohorezko Erreg.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 24

16:15 Bankoa Elg. – Eibar (Inf. mut.)

17:30 Txarriduna Elg. – Eibar (Inf. mut.)

Domeka, 25

10:30 IMH Elg. – Pulpo (Kad. neska)

12:00 Lauko Elg. – Pulpo (Jub. neska)

ESKU PILOTA

Barxakua, 23

21:00 Lagunak – Hernani (1. mailako jub.)

21:45 Lagunak – Aurrera Saiaz (1. mailako nag.)

LANA

ESKAERA

- Klase partikularrak ematen dira. LH eta DBHko ikasgai guztiak eta Batxilergoko ingelesa. Talde txikietan edo banaka. Esperientzia eta titulazioa ditugu. ☎ **617 226 305 / 669 230 428**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Klase partikularrak ematen dira. Batxilergoko matematika, LH, DBH eta Kontabilitatea. ☎ **666 042 710**
- Alemaniarazko klase partikularrak ematen ditut, haur, gazte eta helduentzat. ☎ **670 793 312**
- Elgoibarren bizi den neska euskalduna umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **690 984 397**
- DBHko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **635 313 375**
- Gizonezkoa adinekoak zaintzeko prest. ☎ **681 154 706**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **690 925 929**
- Neska edozein lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **663 115 241**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **699 813 826**

- Neska gaztea garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **628 014 327**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **678 932 443**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **650 152 866**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Magisteritza eta EGA tituludun neska Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. (Euskara, gaztelania, ingelesa...). ☎ **659 024 427**
- Alemaniera klaseak ematen ditut, haur eta helduentzako. ☎ **647 275 374**
- Neska euskaldun lizentziatua umeak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest. Irakaskuntzan, begirale eta umezain lanetan esperientzia handia. ☎ **697 322 306 / 943 531 579 (Enara)**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Gizonezkoa lanerako prest. ☎ **685 212 060**

ESKAITZA

- Malape tabernarako zerbitzaria behar da. Esperientziaduna. ☎ **686 771 339**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Berritutako etxea alokatzen da erdigunean. Altzari eta igogailuarekin. ☎ **685 706 001 (20:30-23:00)**

- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarko erdigunean. ☎ **696 944 813 / 626 752 558**
- Etxea hartuko nuke alokairuan, ahal izanez gero, hiru logelatakoa. ☎ **671 289 584**
- Bi logela alokagai Elgoibarren. Pisu partekatua, sukaldea eta erropa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**

SALMENTA

- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **648 191 076**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekkin. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**

BESTELAKOAK

- Saxofoia salgai. Altua. Yamaha, Eb, YAS-275, c/fa sost. Urte betez erabilia. 650 euro. ☎ **609 893 898 (Arantza)**
- Urrezko pultsera galdu dut. Bost elefante eta lau inzial ditu. Sentimenduzko balio handia du. Saritu egingo da. ☎ **690 701 118**
- McLaren markako umeentzako auto tolesgarria salgai. Egoera ezin hobean. 60 euro. ☎ **678 386 033**
- Uztailan belarritako bat aurkitu nuen hilerrian. ☎ **651 706 756**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.
Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)
Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

Zure semeak ondo ikusten duen seguru zaude?


FEDEROPTICOS IKUS-en ikusmen azterketak egiten ditugu, begi alferra, desbideratzea edo ikusmen txarra antzemateko, eta era berean, ikasketa arazo posibleak eragozteko.

FEDEROPTICOS IKUS
 Jose de Arizotxa kalea, 10
 Tel: 943 157 574 - AZPIERTIA

San Bartolome kalea, 10
 Tel: 943 743 734 - ELGOIBAR



Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



• Zorionak, **Gorane**, 9 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Eider**, etxeko guztien partez, irailaren 28an 4 urte beteko dituzulako. Patxo bat.



• Zorionak, **potoli**, bihar 5 urte beteko dituzulako. Patxito handi-handi bat guztien partez.



• Zorionak, **Manex**, zurre laugarren urtebetetzean! Irailak 27a egun alaia izan dadila! Lau belarri tirakada, anaia Xabaten partez!



• Zorionak, **Uxue**, zure hirugarren urtebetetzean. Muxu asko gurasoen, eta bereziki, Dane-len partez.



• Zorionak, **Asier**, astelehenean 2 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ane Mujika**, zure bosgarren urtebetetzean. Familiako guztien, eta bereziki, ahizpa Noraren partez.



• Zorionak, **Joane**, igandean 5 urte beteko dituzulako. Muxu asko etxekoan, eta bereziki, Ekain, Iker eta Marken partez.



• Zorionak, **Iker**, zure urtebetetze egunagatik. Muxu asko amama Bea eta amama Lidia-ren partez.



• Ostirala iritsi da, iritsi da ostirala... Gaurkoa berezia da, **Norak** 5 urte egin dituelako. Muxu bat Maite eta Mirenen partez. Zorionak!



• Zorionak, **Xabier**, 4 urte egingo dituzulako irailaren 25ean. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Diego**, domekan 11 urte egingo dituzulako. Egun ona pasa! Gurasoen, Paularen eta Jorgeren partez.



• Zorionak, **Iratxe** Ostegunean urtebete egin zenuelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Elene**, asteartean urtebete egingo duzulako. Muxu handi bat Mariaren partez.



• Zorionak, **amama**, hilaren 17an zure eguna izan zelako. Muxu bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Aitor eta Jon**, zuen seigarren urtebetetzean. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Maialen eta Gema**, abuztuaren 22an eta irailaren 13an zuen eguna izan delako. Etxekoan partez, muxu bat.



• Etapa txikiak osatzen dute bidea. Zorionak eta eskerrik asko. Txikitxoaren eta etxekoan partez.



• Zorionak, **Manex**, hilaren 20an 2 urte egin dituzulako. Etxekoan partez, muxu bat.




• Egin dik hiriak, **Xabier**! Ondo pasa! Guk hala egingo diagu-eta! Etxekoan partez, muxu bat.



• Zorionak, **Daniela eta Maialen**, zuen zazpigarren eta lehenengo urtebetetzean. Muxu asko familiakoan partez.



• Zorionak, **Manex eta bere amari**, irailaren 25ean eta 27an urteak beteko dituzulako. la amak, semeak adina opari jasotzen dituen. Egun ona pasa!



• Zorionak, **bikotel** Lehengo ostiralean mundial pasatu genuen! Maialenen eta Landerren partez.



• Zorionak, **bikote**! Egun ona pasa! Familiakoan partez!



• Zorionak, **Naroa, Eider eta Rosa** zuen urtebetetzean! Iriondotarren eta Mausitxakoan partez. Askok maite zaituztegu! Patxo handi bana!



Irailaren 30ean, 17:00etatik aurrera **eskulanak** eta **jolasak Plaza Handian!**
HH5-LH6ko herriko haur guztientzat.

Irailak 30, **sorpresaz beteriko ostirala.**
Arratsalde desberdina pasatu nahi?
17:00etatik aurrera, Gaztelekuan.



23 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa.

Musika

19:00 Kale Kantariak

Entsegua egingo dute, Kultur Etxeko sotoan.

Musika

22:30 Sotoko Hotsak

Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

24 zapatua

Azoka

10:30 Txankakuaren feria

Herriko merkatariek euren produktuak jarriko dituzte salgai,

Plaza Handian. Haurrentzako puzgarriak, txu-txu tren eta txosna ere egongo dira.

13:00 Zozketa

Ehun euroko sei erosketa-txeke zozketatuko dituzte.

Tailerra

10:30 Hilekoaren tailerra

Miren Guillo eta Mireia Delgadok emango dute, Kultur Etxeko sotoan.

Feria

10:30 Azken zapatuko feria

Elgoibarko baserrietako produktuak dastatu eta erosteko aukera egongo da Nafarroa Plazan. Eguerdian, Kale Kantariak.

Kirola

11:00 Familia argazkia

Sanlo eskubaloi taldeak aterako du, Ikastolan.

12:00 Taldeen argazkia

Sanlo eskubaloi taldeak aterako du, Nafarroa Plazan.

Manifestazioa

16:30 Autobusa

Bilbora joateko autobusa, Txankakuako zubian.

25 domeka

Irteera

10:00 Mendi irteera

Ikastolako guraso taldeak antolatuta, Arratera irteera.

27 martitzena

Aisialdia

17:00 Ipun kontalaria

Liburutegin.

Hitzaldia

18:00 'Fibromialgia: etorkizun oparoa'

Loredi Salegik eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, Ongizate Sailak antolatuta.

28 eguaztena

Felikula

19:15 Jaiak eta bizitza:

Elgoibar 1961

Dimas Gil Aulestiartek eginiko dokumentala, Kultur Etxean. Hilaren 29an eta 30ean ere egongo da ikusgai.

29 eguena

Hitzaldia

15:30 Generoa eta umorea

Virginia Imazek eskainiko du, Kultur Etxean.

SAN MIGEL JAIK 2011

24 ZAPATUA

13:00 Kanpai jotzea

17:00 Artzain txakur txapelketa

Euskal Herriko arraza libreko finala.

22:30 Haritz dantza taldearen dantzaldia

Borja Uzuriagaren oroimenez.

Ondoren, erromeria

MP5 taldearekin.

1:00 Bolo txapelketa

25 DOMEKA

11:30 Meza

Ondoren, trikitaliak

Baltzola anaiak.

17:00 Idi demak

Ondoren, erromeria

Baltzola anaiekin.

29 EGUENA

SAN MIGEL EGUNA

11:30 Meza

Ondoren, bertso saioa

Ziarda eta Mañu bertsolariekin.

13:00 Pilota partidak

Ondoren, trikitaliak

Elustondo anai-arrebak.

20:30 auzotaren afaria

Ondoren, erromeria

Elustondo anai-arrebekin.

30 BARIXAKUA

GAZTEEN EGUNA

20:00 Triki bertso kalejira

Ekaitz eta Arantza trikitalariekin eta Andoni Egaña eta Julio Soto bertsolariekin.

21:00 Bertso afaria

Ondoren, disko festa

2 DOMEKA

11:15 Meza

12:00 Aiaziara korrika igoera

OKINDEGIA

25 domeka FOTERO

FARMAZIAK (24 orduz)

23 Etxeberria (Errosario)

24 Ibañez

Goizez: G.-Bidasolo

25 Ibañez

26 G.-Bidasolo

27 Etxeberria (Santa Ana)

28 Fernandez

29 Yudego

30 Zabaleta

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA ONGARRI ZINE-KLUBA

«Cirkus Columbia»

23, barixakua: 22:15

«No tengas miedo»

24, zapatua: 19:00/22:15

25, domeka: 19:00

26, astelehena: 21:30



DANOBAT

Makina-erreminta sektorean aitzindaria, Mondragon Taldeko partaide eta Elgoibarren kokatutako enpresak ondorengoak behar ditu:

KOMERTZIAL ARLOKO TEKNIKARIA (Erref.0.500)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoan formazioa.
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz.
- Beste hizkuntza batzuk menperatzea baloratuko da.
- Bidaiatzeko prest egotea.
- Komertzial arlorako zalea izatea.
- Komunikatzeko gai izatea.

INGENIARI ELEKTRONIKOA (Erref.0.501)

Eskatuko da:

- Ingeniari tekniko edo goi mailako elektronikarlan.
- Automatismoen lan esperientzia: programazioa eta marbxan jartzea
- PLC textu estrukturatuan lan esperientzia (Beckhoff,B&R,Lenord Bover...)
- CNC-en ezagutza
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz.
- Lantaldeetan jarduteko erraztasuna.
- Bidaiatzeko prest egotea

PROIEKTUGILE MEKANIKOA (Erref.0.502)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailako
- Diseinatzaile mekaniko 3Dtan.
- Esperientzia makinak diseinatzen.
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz.
- Mekanizatua eta muntaketa lanetako ezagupenak eta esperientzia ere baloratuko dira.

MUNTATZAILE MEKANIKOAK (Erref.0.503)

Eskatuko da:

- Lanbide Heziketa II Mekanizatu bidezko produkzioa edo Industria Ekipoen mantenimendu edo muntaketa goi mailako zikloa
- Hizkuntzak: ingelesa eta euskara
- Bidaiatzeko prest egotea

Baloratuko da:

- Muntaketa mekanikoetan esperientzia
- Ohiko makina erremintak manejatzen esperientzia
- CNC bidezko makinak manejatzen eta programatzen esperientzia

ESKAIINTZA TEKNIKARIA (Erref.0.504)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza teknikoan edo goi mailakoan formazioa antolaketa edo mekanika arloetan.
- Hizkuntzak: Euskaraz eta alemanez hitz egiten eta idazten jakitea.
- Bidaiatzeko prest egotea.
- Komunikatzeko eta lantaldean aritzeko gaitasuna.

PROIEKTU INGENIARIA (Erref.0.505)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza teknikoan edo goi mailakoan formazioa antolaketa arloan.
- Bezeroarekin zuzenean lan egitea atsegin izatea.
- Iniziatiba eta talde lanean aritzea atsegin izatea.
- Hizkuntzak: ingelesez (hitz egin eta idatzi) eta euskaraz ondo jakitea.
- Beste hizkuntza batzuek jakitea baloratuko da (frantsesa eta/edo alemana).

Eskaintzen da: Antolakuntza industrial sendoaren parte izateko eta promoziorako aukera.

Interesatuak bidali curriculum dagokion erreferentzia adieraziz hurrengo posta helbidera:

Giza Baliabideetako departamendua 28 PK. - 20870 ELGOIBAR edo helbide elektronikoa honetara: gb@danobat.com



C.D. DEBABARRENA ELGOIBAR

2011-2012 bazkide kanpainak

Banakako bazkidetza: 30 euro (15 urtetik gorakoak)
Etxeko partidak ikusteko sarrera: 3 euro (15 urtetik gorakoak)

Bazkide egiteagatik opariak ditugul

Bakarkako bazkidetza: Martin Berasategik gomendatutako laberako balo duten hiru ontzi.



Familia bazkidetza: 2 ontzi sorta edo trolley maleta aukeran.



Bazkidetza egiteko datuak: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea eta kontakturako telefonoa.

Bazkide egiteko, areto futboleko dabilen ezagun bati edo King-Kong tabernan galdetu.

Bazkide txartelak eta opariak jasotzeko: Ligako lehen partidak, Olaizaga kiroldegian. (Urriak 1, Zierbenaren kontra).

LARUNBATA: 2011/ 09/24

Aurre-denboraldia

NON: Olaizaga polikiroldegia

ORDUA: 19:30

CONCEPTO-EGILE

LASKORAIN-TOLOSA

Sarrera doan

LARUNBATA: 2011/10/01

Lehen jardunaldia - LIGA

2B maila

NON: Olaizaga kiroldegia

ORDUA: 19:30

CONCEPTO-EGILE

ZIERBENA (Bizkaia)